

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

38/2026 Mozioa, martxoaren 23koa, Mildiuak sortutako arazoan aurrean, neurri estrukturalak hartzeari buruzkoa

Arabako Batzar Nagusi hauetako Nekazaritza Batzordeak, 2026ko martxoaren 23an egindako bileran, mozio hau onetsi zuen:

38/2026 Mozioa, martxoaren 23koa, Mildiuak sortutako arazoan aurrean, neurri estrukturalak hartzeari buruzkoa.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote ezen, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan arituz, galdegin diezaiola eskumena duen erakundeari alda ditzala egungo baldintzak eta errekonozitu dezala Mildiu-a Arabako Errioxan aseguratzeke moduko gaixotasun gisa.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote bultzatzen jarrai dezala klima aldaketak Arabako lehen sektorean, nekazaritza eta abeltzaintza eta ekonomiari dagokienez, dituen ondorioei buruzko ikerketa zientifikoa eta teknologikoa.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote garatu dezala gerta daitezkeen gorabehera agroklimatikoei erantzuna emateko arau-esparru bat, zeinak jasoko duen Mildiua eta antzeko izurriteen arriskuari buruzko alde aurreko informazioa emango duen alerta meteorologikoko zerbitzu bat sortzeko aukera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 23a

Lehendakaria

IRMA BASTERRA UGARRIZA